ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko maiatzaren 18a, ostirala • 57 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: Garapenean laguntzeko proiektuak egiteko 2018ko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS (identifikatzailea): 397899

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

Bigarrena. Helburua

Honako hauek dira deialdi honetan lagunduko diren proiektuak:

a. UK atala: 2017an hasitako urteko proiektu kateatuen jarraipena.

b. US atala: Azpiegituren eta ur- eta saneamendu-sistemen arloko proiektuak, eta proiektu teknikoak egitea.

c. GE atala: Giza eskubideak babesteko proiektuak.

d. PT atala: Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak.

e. SG atala: Elkartasun globalerako sentsibilizazio-ekintzak, 2018ko urtarrilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra bitartean egitekoak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 1.041.684,01 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ekainaren 8ra arte, SG ataleko eskabideak.

Ekainaren 15era arte, GE ataleko eskabideak.

Ekainaren 29ra arte, PT ataleko eskabideak.

Ekainaren 26ra arte, US ataleko eskabideak.

Irailaren 26ra arte, UK ataleko eskabideak.

Vitoria-Gasteiz, 2018 apirilaren 27a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.05.18 05:35:08 Z